



EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 30ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2023/2024ko, erkidego mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduak (2023ko abenduaren 1ekoa EHAA), Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean 2023/2024ko ikasturtean, erkidego mailako, lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeitaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle Teknikoen Irakasleen Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2023/2024ko, erkidego mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Lortutako puntuazioaren eta parte-hartzaileen eskaeren lehentasun-ordenaren arabera egingo da esleipena. Lortutako puntuazioa Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 20ko Ebazpenaren bidez argitaratutakoa da (akatsak zuzendari beraren 2024ko maiatzaren 27ko Ebazpenaren bidez zuzendu ziren), baina gainpuntuazio bat egon daiteke, zeina horrela islatuko baita argitaratzen den "ebazpenaren zerrenda laburtua", esleitutako lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna baino goragoko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten pertsonen kasuan (deialdiaren I. eranskinaren 6.7 oinarria).

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2024ko maiatzaren 31tik ekainaren 6ra, biak barne.



Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>. Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze-lehiaketa / Behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioa edo lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egitea.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 30ean